ITZALDI ÉRIKOIAK

ARANTZALIERI

Igesko uŕtian Mutrikun asitako itzaldieri jaŕaituaz, Uŕilan ageŕtuko dira itxas-eŕietan Iriondo ta Laŕañaga abadiak, erakusten gure aŕantzalieri beren jakiñerako beaŕ beaŕeko gauzak.

Atzeŕietako aŕantzalien bizitza, aŕantz-erak, euren aŕtian daukezen alkartasunak, aŕaiñen oiturak, etc. azalduko dituztez. Ontarako erabiliko dute EUSKO-IKASKUNTZAN aŕgazki tramankulua, aŕantzaliak obeto aitu dien itzaldian erakustian. Ez dira izango ez astunak, ta ez ilunak itzaldien gayak, baizik guziak aditutzeko bezela, ereźak eta argiak. Dira ba itzaldi eŕikoiak.

ARTX. E.I./S.E.V.
Saila
Agiri Zk.

ASAIAN AURKA

Eibaŕko eŕia, ikaraturik asai edo idoŕberiak ondatzen dituan ainbat gaztegaz, asi du guda pozgaŕizkoak beran kaltez. Oŕtarako antolatu du Batzar bat sendagile, abade, ziñegotzi, langile ta ugesabegaz. Nolan zeregin edeŕ au eusko abendaren etzai kaltegaŕizko baten auŕka dan, eskatu du EUSKO-IKASKUNTZAN laguntasuna: ta baita pozik eman ere. Onela ba, uda-azkenian jaŕaituko dute lenengo Eibaŕen, ta gero inguruetako eŕietan itzaldi irakaskoŕak, asaian kaltez. Azalduko dute asaia nolan soŕtzen dan, nolan ondatzen daben gorputza ta osasuna, nolan kendu ta sendatzen dan, zeŕ egin beaŕ danetxietan, ikastoletan, lantegietan asaian azpian ez jausteko: baita ere garbitasunan, udan ta eguzkian indaŕa gaiz beldurgaŕioŕen auŕka. Itzaldi eroso ta egokiak izango dira, ta obeto aitzen emateko aŕgazki beraizikoak erakutziko dira.

Eibaŕen, onez gain, asmoa dago osategi bat egiteko, asai gaizdunentzat. Ontarako uda beŕian jai batzuk ospatu zituzten, ainbat mila lauŕleko bildurik.

EUSKO-IKASKUNTZAK poz pozik ematen du bere laguntasuna, oŕlako asmo ta lanetarako.

ARTX. E.I./S.E.V.

Saila

Agiri Zk.